

BILBAO 2018

DESBERDINTASUNEK BATU
EGITEN GAITUZTE!



Tokiko & eskualdeetako
Europa



Bilbao

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS

CEMR delakoaren herritarren hitzaldia
Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa

Dokumentu kontzeptuala

2018ko ekainaren 11tik 13ra
Euskalduna Kongresu Jauregia, Bilbo

Laguntzaileak:



#cemrbilbao2018
www.cemrbilbao2018.eu

Europar Batzordearen finantza-sostenguekin:



Sarrera

CEMR

Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR) Europako tokiko eta eskualdeko gobernuen ahotsa da. Tokiko 130.000 gobernuren ordezkaria da, eta 41 herrialde ezberdinetako 60 elkarte nazionaletan dago bilduta. Hauxe da batzordearen zeregina:

- Europako legerian tokiko eta eskualdeko gobernuen eta hirien izenean eragitea, eta
- bizipenak eta praktikak trukatzeko kide eta bazkideentzako plataforma bat eskaintzea.

Lau urterik behin, CEMRk kide eta bazkide guztiak biltzen ditu herritarren eta senidetzearen hitzaldi batean. Bertan, Europako alderdi interesdunak eta profesionalak batu nahi dira, Europako herritarrak delako kontzeptu zabalarekin zerikusia duten arloetan iritziak eta ezagutza truka dezaten. 2018. urteko hitzaldian, tokiko politikoei eta profesionalak honako oinarritzko kontu hauek nola jorratzen dituzten erakutsiko dute: genero-berdintasuna, LGBTI kolektiboaren eskubideak, arrazismoa, etorkinen integrazioa eta herritarren parte-hartzea.

Lau urtez behingo azken hitzaldia Erroman (Italia) egin zen 2014. urtean, Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentetza Italiak zuenean. 2018. urteko hitzaldia CEMR-ren Gizon eta Emakumeen Berdintasunaren aldeko eta Emakumeak Tokiko Bizitzan egoteko Batzorde Iraunkorraren lan-programaren baitan antolatuko da, eta gaur egun euskal udalerrien elkarte da batzordeburua.

Berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko hitzaldia

Deskribapen orokorra

Ekitaldiaren izenburua: Desberdintasunek batu egiten gaituzte!

Ekitaldiaren lekua: Euskalduna Kongresu Jauregia, Bilbo, Euskadi (Espainia)

Ekitaldiaren data: 2018ko ekainaren 11tik 13ra

Antolatzaileak:

- Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR)

- Bilboko Udala
- Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL)

Laguntzaileak:

- Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP)
- Plataforma

Helburuzko hartzaileak

CEMRk, Bilboko Udalak eta Euskadiko Udalen Elkartek (EUDEL) nazioarteko hitzaldi estimulatzaile eta irakasgarri bat antolatu nahi dute, non jende-sorta handia bilduko den.

500 parte-hartzaile inguru heltzea espero da, batik bat, Europatik, baina baita urrunagotik datozenak ere (adibidez, Mediterraneoko arrotik). Gainera, tokiko eta eskualdeko ordezkari hautetsiak eta adituak, Europako erakundeak, gobernu nazionalak, teorilariak, gizarte zibilaren solaskideak eta hitzaldiaren gaiak lantzen dituen sektore pribatuko ordezkariak bilduko dira.

Helburuak eta emaitzak

Hitzaldiaren bitartez, hauxe lortu nahi du CEMRk:

- Berdintasunaren aldeko askotariko gizarte inklusiboek proposatzen dituzten erronkak ea aukerak azaltzea tokiko mailan erabakiak hartzen dituzten pertsonei eta herritarrei.
- Tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko Europako gutunak inoiz baino sinatzaile gehiago edukitzea lortzea, prozesua praktikan jartzeko aldi ezberdinak ordezkatzeko dituztenak. Xede nagusia gutunak ahalik eta sinatzaile gehien edukitzea bada ere, bertan gehituko dira generoen arteko berdintasunaren alde neurriak hartzen dituzten tokiko eta eskualdeko gobernuak, nahiz eta gutunari atxiki ez.
- Tokiko eta eskualdeko gobernuen eta gizarte zibileko alderdi interesdunen eta gaiari lotutako teorilarien arteko loturak sendotzea.

Hitzaldi honen bitartez nahi dugu parte-hartzaileak:

- Askotariko testuinguruetako bazkideak eta kideak **ezagutzea** eta norbanakoak baloratzen dituzten erkidegoak nola eraikitzen diren deskubritzea, herritarren ahalmen guztia sustatu dezaten.
- Elkarrekiko praktiken eta esperientziaren bitartez **ikastea**, eta XXI. mendeko tokiko gobernantza inklusiborako tresnak eta ezagutzak berenganatu ditzaten.
- Tokiko politika eta ekintza publikoarekiko konpromisoa duten liderrak **oinarri gisa hartzea**.

Gaiak

Mundu osoan, baina baita Europan ere, pertsonak gero eta konektatuago daude eta inoiz baino aldakorragoak dira. Status quo-a probatzen duten paisaia demografiko eta politikoen aurrean gaude. Gure eskualde eta hiriek berdintasun ezari, bereizkeriari eta bazterkeriari lotutako kontuei aurre egitea interesatzen zaie eta horretarako eskumena dute. Aukera eta bide berriak aztertu behar dira herritar guztiak erakarri eta **aintzat hartzeko eta pertsonen nahiak eskuratzeko aukera ematen dieten tokiko inguruak sortzeko**, berdintasuna oinarri hartuta eta segurtasun osoarekin.

Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa ezinbestekoak dira erkidego erakargarriak garatzeko eta herritar guzti-guztien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Horiek dira hitzaldiaren **zeharkako** hiru oinarri tematikoak, eta Europako balio nuklearrak dira, bai eta tokiko eta eskualdeko eremuetan ekintza berritzaile bat egiteko aukera-eremuak ere.

Oro har, Europako gizarte-paisaiaren eraldaketaren inguruko ideiak eta esperientziak jorratuko dira, baina, besteak beste, giza eskubideak, bereizkeriaren/bereizkeria anizkunaren aurkako borroka (interseksionalitatea), garapen iraunkorrerako helburuei buruzko NBEren Agenda 2030, migrazioa eta integrazioa, zerbitzu publikoak eta kudeaketa, enplegua eta demokrazia parte-hartzailea.

Bereziki tokiko bizitzan emakumeek eta gizonek duten berdintasunari erreparatuko zaio eta **Berdintasunerako Europako Gutunari**.

Hitzaldia **politikoa** eta **teknikoa** izango da, eta eztabaidak, mintzaldiak eta saio **interaktiboak** egingo dira. Bertan, tokiko politikariak eta profesionalak egongo dira.

Berdintasunak, aniztasunak eta inklusioak eskain ditzaketen aukerez baliatzeko unea iritsi da. Bilbon eta urrunago ere, desberdintasunek batu egiten gaituzte!

Egitura eta saio-motak

Hitzaldian, ezohiko bilkurak, eztabaidak, tailerrak eta mahai-inguruak egongo dira, eta horien bitartez tokiko eta eskualdeko gobernuek eta hiriek gaur egun berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren esparruetan lantzen ari diren ekintzak azalduko dira. Bestalde, tokiko bizitzan gizarte aniztasunean eta inklusioan aurrera egiteko udal-kudeaketa nola erabili behar den erakutsiko da, Europako udalerrri guztiek partekatzen duten erronka.

Goian aipatutako helburuak hitzaldiaren egiturari islatuko dira, eta saioak honela egituratuko dira:

- **Osoko bilkurako saioak:** bat gidoia zehaztu eta parte-hartzaileak prestatzeko, eta beste bat ondorioak aztertu eta hitzaldiaren hiru gaien arteko harremanak aztertzeko (hitzaldi bakoitzak **2 orduko** iraupena izango du).
- **Saio paraleloak.** Hauexek dira aukerak: eztabaida klasikoak, «TEDxLocal» solasaldiak aurkezpen laburrekin (18 minutukoak gehienez ere) eta, jarrian, parte-hartzaileen eta aurkezleen arteko truke-segidak (bakoitzak **1,5-2 orduko** iraupena izango du).
- **Proiektuen «Speed dating» direlakoak,** non interkonexioa erabakigarria den (**1,5 eta 2 ordu**).
- **«World Kafea» tailerrak,** tokiko eremuan gauzatzen ari diren politikak, proiektuak eta metodologiak eztabaidatzeko (**1,5 eta 2 ordu**).
- **Kanpoko saioak:** harreman zuzena eskainiko dute bazterkeria- eta/edo bereizkeria-arriskuan dauden herritarrekin batera egunero lan egiten duten zentroekin. Saio horiei esker, parte-hartzaileek **esperientzia praktikoa** izango dute, eta Bilboko Udalak berdintasun, aniztasun eta inklusioaren alde egiteko eta sustatzeko modu zehatzak ikusiko dituzte (**1,5, 2 eta 4 ordu**).

Guztira, gehienez, 3 saio garatu ahal izango dira paraleloki, eta horrek parte-hartzaileei topo egiteko, ikasteko eta gai guztien bitartez inspiratzeko aukera-sorta handia eskainiko die.

Bazkideak

CEMR eta antolatzaileak bazkide-sorta handi batekin harremanetan jarriko dira ekitaldia ahalik eta arrakastatsuena eta inklusiboena izan dadin. Bazkideek elkarrekin saio paraleloak antolatzeko aukera izango dute.

Sareko eztabaiak eta sare sozialak



CEMR-ren lantaldeak aktiboki jardungo du sarean, bai ekitaldia baino lehen, bai ekitaldian bertan, eta bereziki #CEMRBilbao2018 traolaren bitartez Twitter sare sozialean.

Harremanetarako eta galderak egiteko

Galdera guztiak Jaime Just CEMRko Genero-berdintasun eta Aniztasun politiken arduradunari zuzenduko zaizkio posta elektronikoz (jaimie.just@ccre-cemr.org) edo telefonoz (+32 2 500 05 49).